



## 13/2025 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2025KO ABENDUAREN 11AN EGINDAKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

##### ZINEGOTZIAK:

Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)  
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)  
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)  
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)  
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)  
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)  
Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)  
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

##### IDAZKARIA:

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

##### EZBERTARATUTAKOAK:

Ana Elosegi Artola (EH Bildu taldea)  
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2025ko abenduaren 11an, arratsaldeko 19:09etan, eta ondorio horretarako egin ondoren, Udaleko osoko bilkura antolatuta, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakari zapean, eta Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa arituta idazkarilanean.

Alkateak bertaratu koei eskerrak eman ondoren, bilerari hasiera emanaz Alkateak saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udaltzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

## I. EBAZPENAK

### 1.- ERROTALDEA AUZOKO ETA ISASTI, ETXABURU ETA HOZPEL AUZOETAKO ERABERRITZE PROIEKTUETAKO INBERTSIOAK FINANTZATZEKO 3.200.000 EUROKO MAILEGUA KONTRATATZEKO PROPOSAMENA ONARTzea.

Nuria Carbonell EAJ/PNVko ordezkariak hartu du hitza adieraziz proiektuekin ados daudela baina kopuru horrek bertigoa ematen dielako abstenitu egingo direla.

Espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, Udaltzako honako hau erabaki du 6 aldeko boto eta 3 abstentziorekin:

## EBAZPENA





**LEHENENGOA.** Errotaldea auzoko eta Isasti, Etxaburu eta Hozpel auzoetako eraberritze proiektuetako inbertsioak finantzatzeko 3.200.000 euroko mailegua kontratatzeko proposamena onartzea.

**BIGARRENA.** Erabaki honen jakinarazpena bidaltzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzuko Ogasun eta Finantza Departamendura.

**HIRUGARRENA.** Idazkari kontu-hartzaileari agintzea dagokion dokumentazioa tramitatzeko.

**LAUGARRENA.** Alkatea ahalduntzea Gipuzkoako Foru Aldundiak dagokion aldeko txostena igorri ostean KUTXABANK finantza entitatearekin mailegu hau sinatzeko.

## 2.- 2026. EKITALDIRAKO ANOETAKO UDALEKO AURREKONTU OROKORRA BEHIN BEHINEAN ONESTEKO PROPOSAMENA

Nuria Carbonell EAJ/PNVko ordezkariak hartu du hitza esanez arrazoi ezberdinegatik ezin izan dutela ekarpen eta proposamenik bideratu aurrekontuen gaiarekin. Hala ere, batetik aipatu du aurrekontuen memorian itzulpen arazo batzuk daudela eta horiek konpontzea komeni dela. Bestetik, aipatu du II. Kapituluaren ingurumen atalean kanpo kontratazio bat planteatze dela.

Alkateak hartu du hitza eta adieraziz aurreko bileran azaldu ziola urtebete daramala Udalak ingurumen saila hutsik duela eta urtebetez kanpo kontratazio bidez zerbitzua ematea zela, ikusteko benetan sail horretarako pertsonal beharra zenbatekoa den. Langileen ordezkariari ere azaldu ziola planteamendu hau beraien oniritziarekin urtebetez hala egitea proposatzen dela. Horrek I. kapituluaren ere eragina izango duela adierazi du amaitzeko.

Ondoren, Nuria Carbonellek hartu du hitza berriro galdetzeko ea auzoen eraberritzearen planifikaziorik badagoen.

Alkateak hartu du hitza eta adieraziz Errotaldea auzoaren eraberritze proiektua eta esleipenaren prozedura jada udalbatzak onartuak dituela eta urtearen hasieran aurrekontuak indarrean jartzen direnean hasi nahi dela esleipen prozedurarekin. Isasti, Hozpel eta Etxaburu auzoen eraberritze proiektuak ere onartuak daude udalbatzan baina esleipen prozedura oraindik ez da onartu. Besteak beste, obra bakarra izan arren 3 fasetan exekutatzea da onuragarriena bizilagunen bizi kalitatearen mesedetan eta hori ongi definitu nahi da pleguetan. Horregatik, 2025ko likidazioa egin ondoren egin behar da lehenbizi kreditu txertaketa, ondoren esleipen prozedura onartu udalbatzen eta segidan esleipenera atera obra.

Aurreko guztia kontutan hartuta, Udalbatzak honako hau onartu erabaki du aho batez:



## EBAZPENA

**LEHENENGOA.** 2026 ekitaldiko Anoeta Udaleko Aurrekontu Orokorra behin behinean onestea, sei milioi bederatziehun eta hamahiru mila zazpiehun eta berrogeita hamabost euroko (6.913.755,00 €) zenbatekoarekin, bai sarrera bai gastuen egoerari dagokionez, ondoko zehaztapenekin:

### AURREKONTUA

		€
<i>Gastuen aurrekontua kapituluka</i>		
1.	Pertsonal-gastuak	1.107.748,00
2.	Ondasun korronteen eta zerbitzuen gastuak	945.562,00
.....		
3.	Finantza-gastuak	1.000,00
4.	Transferentzia korrontek	589.695,00
5.	Kreditu globala	20.000,00
6.	Inbertsio errealak	4.249.750,00
7.	Kapital transferentziak	0,00
8.	Aktibo finantzarioak	0,00
9.	Pasibo finantzarioak	0,00
Guztira .....		6.913.755,00
<i>Sarrereren aurrekontua kapituluka</i>		
1.	Zuzeneko zergak	364.295,00
2.	Zeharkako zergak	225.000,00
3.	Tasak eta bestelako sarrerak	541.070,00
4.	Transferentzia korrontek	2.300.890,00
5.	Ondare sarrerak	30.700,00
6.	Inbertsio errealak besterentzea	1.800,00
7.	Kapital transferentziak	250.000,00
8.	Aktibo finantzarioak	0,00
9.	Pasibo finantzarioak	3.200.000,00
Guztira .....		6.913.755,00

**BIGARRENA.** Onartzea, halaber, 2026erako Aurrekontua Betearazteko Udal Araua.

**HIRUGARRENA.** Hartutako erabakiak jendaurrean ikusgai jar daitezela hamabost egun baliioduneko epean. Horretarako, iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan, erreklamazioak eta iradokizunak egiteko aukera egon dadin.

**LAUGARRENA.** Erabaki hauek behin betikoak bilakatuko dira, jendaurrean ikusgai dauden epean ez bada erreklamaziorik aurkezten.



Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:23tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

---

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

